

## erakusketak

- Nestor Basterretxea: "Bolumetria arkitektonikoak". San Telmo museoan, ekainaren 29a arte.
- "Del dia/De la noche" margo erakusketa. José Antonio Sistiagaren pinturak. Kurt Art Galerian (Zurriola etorbidea 6), ekainaren 30a arte.
- "Montparnassetik ideia hutsera. XX. mendeko abangoardien bila Serra Bilduman". Kubo Artearen Kutxagunean (Zurriola1), uztailaren 6a arte.
- Eduardo Alvaradoren pinturak. Paupa Galerian (Salamanca pasealekua 2), uztailaren 11 arte.
- 'Txiki' Zabaloren marrazki, kartel eta ilustrazioen erakusketa. Koldo Mitxelena kulturuneko Ganbara aretoan, uztailaren 12a arte.
- Alfonso Berridiren eskulturak eta argazkiak ikusgai. DV Galerian (San Martin 5), uztailaren 13a arte.
- A.R. Penck alemaniarraren pintura erakusketa. Altxerri galerian, uztailaren 16a arte.
- "Txikiller". Lorena Amorosoren pinturak ikusgai Galeria Dieciseis aretoan, uztailaren 26a arte.
- Txillida, Balerdi, Zumeta, Tapiés, Miró, Manolo Valdés eta Koldobika Jauregi artisten obra grafikoa ikusgai. Ekain Artelanak (Inigo 4) aretoan, abuztuaren amaiera arte.
- Nahikari Hospital gazte donostiarraren "Zuhaitzak". Kutxaren Boulevard 1 aretoan, uztailaren 27a arte.


## Rafael Alvarez 'El Brujo' Antzoki Zaharrean



Rafael Alvarez 'El Brujo' entzutetsuak "San Francisco, juglar de Dios" antzezlan eskainiko du Antzoki Zaharrean, ekainaren 27tik 29ra bitartean. Saio guztiak 20.000etan izango dira. Dario Fo-k eta Carla Matteini-k Asisko San Frantziskori buruz idatzitako testu bat oinarri harturik, ikuskizun interesgarria dakar Rafael Alvarez antzezle ezagunak. Kritika soziala, poesia eta ironia uztartzen dituen antzezlan erakargarria baita "San Francisco, juglar de Dios".

## Trapu Zaharra eta Elvis Presley Intxaurrondon

Trapu Zaharra taldeak "Elvis, ¡¡vete ya!!" antzezlan eskainiko du ostira-lean, ekainak 27, Intxaurrondoko Sagastieder plazan, 20.30etik aurrera. Emazteari tratu txarrak eman ostean, bere jarreraz damu agertuko da "Elvis". Hala, emazteari portaera basa utziko duela adierazteko asmoz, Santiago Bidea egitea erabakiko du. Baina ez edonola. Gurutzea bizkar gainean hartuta eta Elvis Presley idoloaren itxurarekin, alegia.



## La Oreja de Van Gogh Ilunbeko Zezen Plazan



Ostegunean, uztailak 3, La Oreja de Van Gogh talde donostiarrak "Lo que te conté mientras te hacías la dormida" diskoa aurkeztuko du Ilunbeko zezen plazan. Ekitaldi nagusiaren atarian, El Canto del Loco ariko da. Madrildarrek kaleratu berri duten "Estados de ánimo" diskoaren kantuek zuzenean eskainiko dituzte. Hortaz, pop

leunaren maitaleek huts ezineko zita duzue ostegunean, Ilunbeko zezen plazan, 21.00etatik aurrera.

# Estreinaldiak

PREZENTATIA

## • LYNCH MAISUAREN PERLA ILUNA



Bizitza ederra da Lumberton herrikka idilikoan. Egun batean, ordea, Jeffrey gazteak belarri bat aurkituko du zelaian. Une horretatik aurrera, amesgaizto ilun batean murgilduko zaigu. Gangster ero eta krudel batek etengabe jazartuko baitu mutila. Oharkabe, il-luratuko duen abeslari estrainio baten besoetan eroriko da. Surrealismo il-lunez zipriztindutako film *noir* fina da "Terciopelo azul". Angelo Badalamenti musikariaren soinu banda zirraragarria

da, zinez. Dennis Hopper aktore madarikatuaren interpretazioa, bernz; aparta oso. Benetako maila.



## LaButeren alde erromantikoa

"In the Company of Men" eta "Your Friends & Neighbours" mikitzen egilea komedia erromantiko klasiko batekin dator kigu oraingoan: "Posesión". Randolph Ash olerkariaren bizitza ikertzen ari dela, poeta viktoriarrek Cristabel izeneko olerkari ezezagun batekin maitasun-harreman sakona izan zuela jakingo du Roland ikerlariak. Cristabelen bizitza ikertzen ari da, berriz, Maud erakargarria. Harekin bat egingo du Rolandek, eta elkarlanean hasiko dira biak. Apurka-apurka, elkarrekin maiteminduko dira.

## • "PRESOS DEL OLVIDO"

Argentina. Zuzendaria: Rodrigo Grande. Aktoreak: Federico Luppi, Ulises Dumont. Hiru hamar-kada luze kartzelan igaro eta gero, kalera irtengo dira bi lagun. Bata tango abeslaria da. Bestea, berriz, akordeolaria. Askatasuna, ordea, ez da zirudien bezain polita. Argentinako zinemarik onenaren zigilua daraman beste komedia gazi-gozo interesgarri bat da. Federico Luppi eta Ulises Dumont bikotearen interpretazioak ezin hobek dira. Ez zaizue damutuko.

## • "MI NAPOLEON"

Alemania/Italia/EB. Zuzendaria: Alan Taylor. Aktoreak: Ian Holm, Tim McInnerny, Iben Hjejle. Simon Leys idazlearen "Napoleonen heriotza" eleberria oinarri harturik, film entretengarri bezain bitxia dakar "Sex in New York" telesail arrakastatsuen zuzendariak. Napoleonek Santa Helena uhartetik ihes egin eta Parisera joko du boterea berreskuratzeko asmoz. Gauzak, ordea, ez zaizkio behar bezala irtengo.

## • "COMO DIOS"

AEB. Zuzendaria: Tom Shadyac. Aktoreak: Jim Carrey, Jennifer Aniston, Morgan Freeman. Morroi arrunt batek Jainkoaren botereak bereganatuko ditu egun bakar batez. Zer egingo du mutilak?

Neska-lagunaren bularrak handitu eta beste hainbat pitokeria kerratu. Jim Carreyren luzimendu hutserako atondutako komedia ergela da.

## • "SHIN CHAN BOLA GALDUEN BILA"

Japonia. Zuzendaria: Keichi Hara. Shin Chan mukizu bihurriaren abenturak pantaila handian ikusteko aukera izango dugu asteburu honetan. Euskaraz zein gaztelaniaz. Galdutako bola botere-tsu batzuen bila dabilta bi gaizkile talde arriskutsu. Shin Chan bihurria tartean sartuko da, eta bereak eta bi egingo ditu. Umore politikoki ez zuzena, gag dibertigarriak eta irudimena nahasten dituen marrazki bizidunetako film atsegina. Shin Chan-zale amorratuenentzat, soil-soilik.



Argitalpen honen edizioan lankide:



**kutxa**  
gizarte ekintza